

NAITEC-EKO LANGILEEN LANUZTE ETA KONZENTRAZIOA

Lekua: Tomás Caballero Parkea (Eraikin Adimenduen aurrean)

Eguna eta ordua: abenduaren 10ean, 11:30ean

Emaizten kontuetan urte defizitarioak, talentu-ihesa, langileek erosteko ahalmena galtzea eta Fundazioaren Patronatuko ordezkari nagusi gisa 2023ko maiatzaz geroztik Nafarroako Gobernuak hainbat kontseilarirekin lau bilera egin ondoren, NAITECeko plantilla planto egin eta etorkizuneko plan bat eskatzen du Zentro Teknologikorako. Nafarroako Gobernuaren egoitza honen atarian, gure eskaerak entzun ditzatela eskatzen diegu Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Kontseilaritzari eta Industria eta Enpresa Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Kontseilaritzari.

Aldarrikapen-ekitaldi honen bidez, NAITECeko kudeatzaileen gaineko kontrolik eza salatu nahi da, zentroa arrisku larriko egoerara eraman baitute, eta horrek ziurgabetasun handia sortzen baitu langileen artean.

NAITECeko langileek mobilizazio hau aurrera eramatea erabaki zuten azaroaren 27an, asteazkenean, batzarrean egindako bozketaren bidez, Nafarroako Gobernuak Zentro Teknologikoaren aldeko apustua egin dezan eta jasanezina bihurtu den egoera lehengoratzeko pausuak eman ditzan.

Zentroarentzako etorkizuneko plana estrategia argi eta zehatz batean oinarritu beharko da, langileen ekarpenak kontuan hartuta, eta NAITEC krisi honetatik ateratzeko gai den zuzendaritza batekin.

Pamplona/Iruñan, 2024ko abenduaren 10an

Comité de Empresa / Enpresa-Batzordea

Representantes de los trabajadores / *Langileen ordezkariak*



NAITEC. Centro tecnológico en automoción y mecatrónica
C/ Tajonar, 20 31006 Pamplona

T: +34 948 29 29 00

COMITE@naitec.es

www.naitec.es

Razón social: Fundación I+D Automoción y Mecatrónica
C/ Tajonar, 20, 31006 Pamplona, Navarra - Spain